



DROGA MENDEKOTASUNEN FENOMENOA INTERPRETazio EREDU EZBERDINAK DAUDELAKO...

Azken aldian, han eta hemen ikusten dira guardia zibilaren drogen kontrako kontrolak. Hauetan guztietan, beti irudi berdina ikusi ohi dugu: gazteak kalean, kotxea miatzen dieten bitartean. Honen harira, drogekiko dauden ikuspegi ezberdinak etorri zaizkit burura, izan ere, argi dago ikuspegi errepresibo honek baliagarritasunik ez duela erakutsi duen arren, indar handia izaten jarraitzen duela. Dena den, drogen mendekotasunaz ari garenean, beti kontuan izan behar ditugu hiru elementu; substantzia, berau hori kontsumitzen duen pertsona eta kontsumo hau ematen den testuingurua. Garrantzia zeri ematen diogun arabera, droga-mendekotasunaren fenomenoak interpretatzeko eredu ezberdinak aurkitu ditzakegu.

Batetik, eredu juridiko errepresiboa dugu, legezko eta legez kanpoko drogen arteko bereizketa egiten duena, azken hauei garrantzia handia ematen dielarik. Legez kanpoko drogak substantzia arriskutsuak izango lirateke, menpekotasuna sortuko luketelarik. Droga hauen erabilzailea, beraz, biktima izango litzateke eta berau babesteko, laborea, manipulazioa, salmenta eta edukitzea zigortzeko legezko neurriak erabiliko lirateke. Droga kontsumitzailea gainera, delitugilean bihurtuko litzateke. Eredu honek estereotipo asko sortu ditu, esaterako droga arriskutsuak juridikoki legez kanpo daudenak direla, substantzia legalak aldiz kalterik sortuko ez luketelarik; drogak, propioki, substantzia ilegalak soilik izango lirateke; etab. honen arabera beraz, porro bat erretzea onartzen ez den bezala, erabat mozkortuta kalean barrena ibiltzea ez litzake hain arriskutsua izango.

Bestalde eredu mediku-sanitarioa aurkitzen dugu. Honetan ez da legezko eta legez kanpoko drogen arteko bereizketarik egiten. Hemen, drogak mendekotasuna sortzen duten substantziak bezala definitzen dira, eta ondorioz, drogazalea gaixotasun mentalaren biktima moduan hartzen da. Eredu honen baitan sortu diren estereotipoak "drogazalea gaixoa da" ideiarekin ildotik doa, droga, askotan, heriotzarekin lotzen delarik. Badakizue beraz, porro bat erretzen baduzu, adi! heriorako bidean baitzaude...

Hirugarren eredu geopolitiko-estruturala da. Eredu honen arabera, droga-mendekotasunaren fenomenoak ulertzeko, honen atzean dauden interes ekonomikoak, politikoak eta abar dituen testuingurua hartu behar dugu kontuan. Droga-mendekotasuna eta honen atzean dagoen guztia, azken finean, gizartearen kontrolerako baliabide bat izango litzateke. Hau dela eta, erraz uler genezake droga-trafikatzailen arduradunek daukaten zigorgabetasuna, korrupziozko testuinguruak, drogen fenomenoaren garrantzia ekonomikoa eta diru-zuriketaren papera.

Eredu psikologikoak pertsonari ematen dio garrantzia. Hau honela, droga-mendekotasuna jokabide

arazo bat gehiago izango litzateke, eta hau aztertzeko jokaera zuzentzen duten printzipioen arabera aztertu beharko litzateke. Beraz, gizakia, bere behar sozial eta psikologikoekin hartzen da kontuan, substantzia bigarren maila batean geratzen delarik, substantziak berak bakarrik ez bailuke arazorik sortuko. Pertsonak droga hartzen du bere erabilerak eginkizun zehatz bat betetzen duelako, eta eginkizun hau beteko ez balu, ez luke drogarik hartuko. Azken batean, drogazalea moldatu gabeko pertsona edo jokaera arazoak dituen pertsona izango litzateke. Erne beraz! drogazalea (edo droga kontsumitzailea baina) agian arazo psikologikoak ditut edo jokaera arazoak dituen pertsona bat naiz eta!

Eredu soziokulturalak testuinguruarengan erreparatzen du, bere konplexutasuna eta aldakortasuna kontuan hartzen dituelarik. Honela, drogaren efektuak eta kontsumitzailea bera ez lirateke hain garrantzitsuak izango. Drogen zentzua ez dute honen ezaugarri farmakologikoek zehazten, baizik eta gizarte batek bere kontsumoa definitzeko dituen moduak eta kontsumitzaileen aurrean nola erreakzionatzen duen. Elementu kulturalak garrantzizkoak izango lirateke, testuinguru kulturalak zeresan handia baitauka kontsumitzen diren drogak eta kontsumo moduak zehazterako orduan. Eredu honen arabera, droga-mendekotasuna sortzen da droga baten eskuragarritasuna ahuldade pertsonalarekin elkartzearen ondorioz, eta honen aurrean dauden estereotipoak "droga-langabezia" edota "droga-arazo ekonomikoak" lirateke.

Eredu guzti hauek neurri batean edo bestean erabilgarriak izan badaitezke ere, guzti-guztiak partzialak dira, arreta puntu batean zentratzen dutelako. Horregatik, Askagintzatik eredu psikosoziokulturala proposatzen dugu. Pertsonok, gure gaitasun eta mugekin, zeresan handia dugula uste dugu, baina pertsonak ezin dira aztertu bere testuinguru soziokulturala kontuan eduki gabe, testuinguru hau ongizate sozialerako eta bere integrazio prozesuetarako onuragarria den edo ez jakin gabe. Modu honetan, droga-mendekotasunaren fenomenoak ondorio bat da kausa bat izan baino, pertsonak bere testuinguru sozialetan integratzeko orduan, integrazio prozesu hauen desegituraketa eta desorekak sortuko lukeelarik droga-mendekotasuna.

Horregatik, gure lana droga-mendekotasunaren fenomenoak sortzen duten kausa pertsonal eta kolektiboaren aurka lan egitea da, horretarako herri-lana bultzatzen dugularik. Horretarako bidea ikaskuntza eta transformazio prozesu pertsonal eta kolektiboak bultzatuko dituen ekintza hezigarri eta prebentiboa sustatzea da. Azken finean, aske bizitzen ikasi behar dugu, droga-menpekotasunik gabe, drogak dituen gizarte batean.

